

Hasselmo and O'Neil 1972a eta Naess and Skard 1971). Gainera, berak idatzitako lanen bilduma asko daude, eta haietan dasta daitezke aise haren ekarpen iraunkorrenetako batzuk (adibidez, Firchow, Grimstad, Hasselmo and O'Neil 1972b, 1971 arteko bibliografia osoarekin; Dil 1972, bibliografia osoarekin hau ere; eta Haugen 1987). Azkenik, erreferentzia estandar guztiek, *Who's Who in America*-k, *Who is Who in American Education*-ek, Osloko *Hvem er hvem*-ek, *Dictionary of American Scholars*-ek, eta beste batzuek, luze eta zabal ematen dute haren postu nagusi, argitalpen, gorazarre eta bidaien berri. Baina, arestian aipatutakoak probetxuz azter badaitezke ere, Haugen ongien ezagutzen zutenak zeharo bat etorriko dira Firchow, Grimstad, Hasselmo and O'Neil (1972a: 8)-en iritziarekin: «*haren lanen eta gorazarreen zerrenda soilak ez dezake egilearen tamaina erakutsi*». *A yidish neshome iz nit optsushatsn* (arima judua ezin da sekulan osoki neurtu), jidishetako atsotitza da, gizateri osora heda daitekeena eta behar dena, partikulariki jeinu eta asmatzaile guztiengana eta Haugen hala zen argi eta garbi. Baina iritzi horrek bere arazoak sortzen ditu. Giza arima osoki neurtzearen ezintasuna aitortu ondoren, ez du gainera inongo gidarik eskaintzen neurketa osoagoa lortzeko. Hori egiteko nire ahalegina, egia esan, subjektiboa izango da.

Einar Haugenen berri 1955ean izan nuen, eta ia ustekabea. Haren liburu bikaina irakurtzea egokitu zitzaidan: *Norwegian language in America* (1953). Liburua («liburuak» hobeki esan, bi aletan argitaratu baitzuten lehenengo aldian) Leybush Lehrer-ek gomendatu zidan, orain YIVO Institute for Jewish Research (lehen Yiddish Scientific Institute-Yivo) deritzanaren zuzendari batek. Institutuak bere izen ingelesa aldatzea erabaki zuen, 1955ean, eztabaida luzearen ondoren, eta nik galdetu nion Lehreri ea beste ikerketa institutu etnikoek gauza bera eginga zuten. Lehrerrek gizarte-zientzietako literatura guztia, eta hizkuntza askotan, irakurtzen zuen, eta erantzun zidan gai hori jorratzen zela Haugenen liburuko lehen alean (ale soziohistorikoan), eta liburu hari laudorio handiak egin zizkion. Jakina, alea irakurri nuenean, ohartu nintzen hark gai hura baino askoz gehiago jorratzeaz gain, hileak eman beharko nituela (eta gustura egin nuen, bai intelektualki bai emozionalki) hura osorik irakurtzen eta oharrak egiten. Hura ez zen soilki historia eta soziolinguistikaren konbinazio on bat (orain ale hori «makrosoziolinguistikakotzat» geneukake), baizik eta agertzen zituen, zorrozki eta era hunkigarrian, Estatu Batuetako norvegiarren artean gertatutako hizkuntza-borrokaren drama, hizkuntza galtzearen atsekabea, ingelesaren bitartez norvegiaradun izatea posible edo komenigarri ote zen gaian bi alderdiek esaten eta sentitzen zituztenak, eta lehenengo eta bigarren belaunaldiko norvegiar-amerikarren artean aurkitutako iritzi ezberdinak gorpuzten eta komunikatzen zituzten idazleen eta argitaratzaileen dohain izugarria. Haugenek garai bat atzeman eta hura bere konplexutasun osoan agertzeko zuen abildadeaz gain (behin eta berriz erakutsi zuen abildadea, ikus bereziki haren *Language conflict and language planning: The case of modern Norwegian, 1966*), bazuen abildade oraindik bitxiago bat. Bai haren soziologia bai datu so-

**«Bai haren soziologia
bai datu soziologikoak
aztertze haren
metodologia biak
bikainak ziren.
Ezaugarri hauek oso
bakanak dira
soziolinguistikako
argitalpenetan gaur
bertan ere, berrogei bat
urte geroago»**

**«Zoritxarrez, begira
gaude oraindik ere,
Haugenen
autodidaktismo
pioneratik hirurogei
urtera,
soziolinguistikako
ikasleak noiz
TREBATUKO ote
dituzten bai
hizkuntzalaritzan bai
soziologian»**

ziologikoak aztertzeko haren metodologia biak bikainak ziren. Ezaugarri hauek oso bakanak dira soziolinguistikako argitalpenetan gaur bertan ere, berrogei bat urte geroago.

Bere autobiografia laburrean (ikus Davis and O'Cain 1980: 133-43) Haugenek kontatzen du nola irakatsi zion bere buruari hizkuntzalaritza ho-geigarren hamarkadako azken urteetan eta hogeita hamargarreneko lehe-nengoetan, «hizkuntzalaritza ez baitzen Estatu Batuetan inon irakasten, fi-*lologia soilik; nire belunaldiko gehienak bezala, neure kasa ikasitako hizkunt-
zalaritza naiz»*. Haugenek azaltzen du zein liburuk, zein irakaslek, zein es-
perientziak (bere haurtzaro elebiduna barne) eta zein lankidek eta hitzal-
dik lagundu zioten gehiena hizkuntzalari bihurtzen, eta «estrukturalis-
mo berriaz eszeptiko» zen hizkuntzalari gainera. Autobiografia berean
(ikus 137. orr.) bere «nahigabea agertzen du baita ere, bilakaera zirraragarri
honen arrastorik aurkitzen ez duelako» (bilakaera bat, zeinaren bidez beste
halako eszeptiko asko agertuko baitziren hogeita hamargarren hamarka-
dako erdialdera) Estatu Batuetako hizkuntzalaritza analisi bikain asko-
tan. Are nahigabetuago egon behar dugu guk Haugen berak ere ez digu-
lako idatziz utzi nola bereganatu zituen soziologiarekiko interesa eta gai-
tasuna. Gaitasun ereduazkoa gaur ere. Hona zer egin zuen: Estatu Batue-
tako errolda-datuak bildu eta bigarrenengo analisia egin, nazio, estatu eta
udal mailan, eta eskandinaviar etorkinen hizkuntza guztietan zehar gai-
nera (norvegiararekin berezia zena eta berdintsuak zirenak aurkitu eta jaso
ahal izateko). Haren datu eta analisi soziologikoek erakusten digute «*teo-
ria abstraktuegiak aise sinesten ez zituen jakintsua, eta gogoeta hutsak baino
datu zehatzak nahiago zituena*» (ikus David and O'Cain 1980:137). Lan
horrek indartu zuen Haugengengan bizitza osoan atxikiko zuen iritzia:
hiztunak ez zirela inondik ere «idealak», ez eta haien gizarteak ere «ho-
mogeneoak» (ikus 138. orr.). Gure belaunaldia ere ez zuten ez soziolo-
gian ez soziolinguistikatan trebatu, Haugenen enfasi soziologikoak indartu
zuen, gutako batzuegan behintzat, gu ere haren bide luze eta zaila hart-
zeko gai ginen ustea, geure buruari ikasi behar zenaren parte handi bat
irakasteko; eta, gure lana hark berea bezain ongi egiten baguen, lan
onak izango ziren emaitza. Zoritxarrez, begira gaude oraindik ere, Hau-
genen autodidaktismo pioneratik hirurogei urtera, soziolinguistikako ikas-
leak noiz TREBATUKO ote dituzten bai hizkuntzalaritzan bai soziologian.

Nik Estatu Batuetan lehenbizikoa izan behar zuen hizkuntzaren soziolo-
gia ikastaroa eman nuenean (Human Relations and Language 2, 1960ko
udaberrian, Pennsylvaniako Unibertsitatean; Human Relations and Lan-
guage 1, 1959ko udazkenean emana, hizkuntzaren psikologiari dedika-
tua izan baitzen), Haugenen *Norwegian language in America* liburua era-
bili nuen testutzat. Urtebete geroago, Estatu Batuetan etorkinen hizkun-
tzak nola gordetzen ziren jakiteko nazio mailako ikerketa bati ekin nion,
eta Haugen zen egindako aurrerapenen txostenak igortzen nizekion lagun
bakanetako bat. Orduko, haren *Bilingualism in the Americas* (1957) liburu
kompletoa funtsezko gida zen niretzat, bertan aurkitzen baintuen nire
ikerketa kontzeptualizatzeko egokiak ziren ehundaka lan. Artean ez nuen

Haugenekin topo egin eta, egia esan, beldurrez nengoen egiteko. Hark nire txostenei eta laburpenei (gero txukundu eta nire *Language loyalty in the United States, 1966* bihurtuko zirenak) egindako iruzkinen atzean biok osoki onartutako egia zegoen maiz: berak aurretik jorratutako gaiak nerabiltzala, eta nik egiten nuela soilik edo haren aurkikuntzekin eta ondorioekin ados agertu, edo, bakanagotan, kontra.

Baina, gure patua zen ez topo egitea bakarrik, eta luzaroko gainera, baikik eta hartueman atsegintsua eta emankorra izatea. Elkarrekin irakatsi genuen biok 1963-64an, Kaliforniako Stanforderko Jokabide Zientzietako Goi-mailako Ikasketen Zentroan; bi astetan behin Hizkuntza Taldea aurkezpenetara joaten ginen (Floyd Lounsbury ere, beste irakasle bat, joaten zen; baita, noizean behin, Joseph Greenberg, Sue Ervin —gero Ervin Tripp—, eta John Gumperz ere, guztiak inguruko unibertsitateetatik), eta ia beti guztiok elkarrekin bazkaltzen genuen. Han ohartu nintzen Haugen ez zela nik uste bezain beldurgarria. Biok eten genuen baita ere gure irakasle-urte idilikoa zegokion baino bi hilabete lehenago —egin ohi ez den gauza— geure burua Indianako Bloomingtonen udan egiten duen eguraldi bero, zakar, ia jasezinaren mendean jartzeko. Baina hantxe zen LSA Institutu Linguistikoa egitekoa eta bertan antolatua zuten SSRC-aren Soziolinguistika Mintegia, Charles A. Fergusonen lehendakaritzapean. Haugenek eta nik ez genukeen ezergatik mintegi hura huts egingo, soziolinguistikaz interesa zuten lagunak oso gutxi baitziren, eta bere burua «soziolinguistatza» zeukatenak oraino gutxiago. Haugenek han idatzi zion aitzinsolasa nire *Language loyalty*-ri, eta hark erabat sendotu zuen gure adiskidetasuna (bion emazteak ere barne hartzen zituen) eta arlo askotako gure lankidetzak, ondorengo hogeita hamar urtean iraungo zutenak. Gellak eta nik Einarri eta Evari begiratzen genien eta esaten genion elkarri: «*Horiexek bezalakoak izango ahal gara gu ere hemendik hogeitaz urtera!*». Eredua onak ziren era guztietan.

Sarritan elkartzen ginen laurok haiek Harvard-a aldatu zirenean (1964an, juxtu Institutu Linguistikoaren ondoren), Einar Haugen eta biok SSRC-aren Soziolinguistika Batzordeko kide bihurtu baikin, eta Eva ere¹ maiz etortzen zen senarrarekin honek urtean bitan New Yorka batzordearen bilerara etorri behar izaten zuenean. Bilerak haietan Haugenek oso rol mesedegarria izaten zuen, batzordea maiz interes etnografikoak bakarrik zizuten elementuen mendean zegoela baitzirudien eta Haugen, beti edozein korrante eskusibista eta monometodologikoz fidagaitz, ausarki aritzen zen batzordeak bere agendan gai disziplinarrekoagoak eta helburu anitzagoak sar zitzen. Haugenen bidearen adibide ona, nahiz eta ez den batzordearen lanetatik aterea, berak 1966ko maiatzaren 20an idatzitako hiru orriko gutuna² da. Gutun hura William Mackeyri igorri zion, 1967an Elebitasuna Zehazteko eta Neurtzeko Metodoen eta Teorien inguruan egin zen Batzarraren antolatzaileari (ikus Kelly 1969). Haugenek iradokizun gehienak adoptatu ziren, eta gainera —gauza argigarria— disziplinen, teorien eta metodoen ikuspegietatik begiratuta, oso jende-klase anitza eta ugaria ekarri zuten.

1) Ez dezagun ahantz Evak parte handia izan zuela Einarren produktioan, beronen artikulua eta liburua editatzen eta zuzentzen baitzituen. Berak eusten zien halaber senarraren kontaktu profesionalari, eta bien bidaia ugarien xehetasun praktikoez arduratzen zen. Berak irakurtzen eta kritikatzeko zituen aurrena Einarren lanen zirriborroak. Gainera, Evak berak ere egiten zituen zenbait ikerketa (eta egiten segitzen du).

2) Idazki honetan aipatzen diren Einar Haugenek gutun guztiak Kaliforniako Stanford Unibertsitateko Bilduma Bereziak saileko Joshua Fishman eta Gella Schweid Fishman Artxiboan daude gordeta.

3) Ikasle ohiek ziurtatu didate ez zela borroka-grinarik sumatzen Einarren eskoletan. Batzarretako haren mintzaldiak ere nahiko leunak bilakatu ziren azken urteetan.

**«Hark bere jatorriaren
azterketa zehatzetik,
bere etorkin-giroko
hautzarotik, etorkinen
gizartetik eta
kulturalatik atera zituen
beti, gero onarpen
zabala izango zuten
aurkikuntza enpiriko
eta generalizazio
teorikoak»**

Gutako askorentzat bezala, batzarretara joatea ia bizimodu bat zen Einarrentzat, eta maiz Einarrentzat eta Evarentzat batera. Atsegin zitzaien bie batzarretan lankideekin, adiskideekin eta ikasleekin sortzen den hartue-mana. Gainera, Einarrek gogozkoak zituen eztabaida beroak, edo pribatuan lagun batekin edo bestearekin, edo publikoan, entzuleen aulkitik nahiz agertokitik, edo biak. Eztabaidan mihi zorrotzekoa bazen ere, sekulan ez zuen inorenganako ezinikusirik ekaitza igaro ondoren, eta inoiz ez nuen pertsonaren beraren kontra ezer esaten ikusi. Begirune handia erakusten zien beti aurkariei eta, askotan, umore-punttua ere bai. Haren «egia-aren aldeko bi gudu» sutsu ditut gogoan bizi-bizi. Lehenengoa Georgetown-eko Mahainguru batean nirekin izan zuen eztabaida (korteski argitaratuta gordetzen dena, hizkuntzari eta hizkuntzalaritzari buruzko Monografia-serien 1970eko alean). Eztabaidatu genuen ea zilegi ote zen interferentzia kontzeptua erabiltzea araurik ematen ez duen analisi soziolinguistikoko batean. Ni erabat kontra nengoen, eta hura erabat alde. Biok atera ginen bizirik. Bai gure adiskidetasuna eta bakoitzaren ikuspegiak ere.

Haugenek Georgetowneko beste Mahainguru batean English Only mugimenduko eledun bati eman zion erantzuna askoz zorrotzagoa izan zen eta nire gogozkoagoa. Agiri ofizialik ezean, buruz ari beharko dut gauza honetan. Haugen adierazpen batez hasi zen: «*Ni nahiko zaharra naiz jadanik, eta ez dut beldurrik hori zer iruditzen zaidan garbi esateko*». Eta segidan esan zuen English Onlyren jarrera zela, «*arrazista, auriritzietan oinarritua eta diskriminatzailea*», jokabide bat «*etorkinen zigortzean plazer hartzen duena, nahiz eta nazioa bera izan haien ingelesa ikasteko egarria ase ez duena*». Haugenen eztabaidarako abildadea ikusirik, beraren ikasleetako batzuek zera esan zuten olgetan: «*Inon gudu linguistikoetako gudari beterranoentzako Valhalla bat bada, Einar Haugenek lehen-mailako tokia izango du bertan*» (ikus Firchow et al. 1972a). Hura ordea «gudari alai» zen, eta normalean atseginez gogoratu ohi zituen batzarrak —bere gudadokiak—. Egun batean, 1975eko ekainaren 16an zehazki, halako batzar baten ondoren idatzi zidan, «*Ezusteko pozgarri asko izan ditugu bileran, Anwar Dilen eta arlo honetan ari diren zenbait gazteren presentzia barne. Astirik ezagatik ezer prestatu ez, eta esku hutsik haraino joateko izan nuen lotsa laster aienatu zuten hango adiskide-giroak eta nire adur onak*». Eta egia da; Haugenek dohain berezia zuen, ez soilki eztabaida on bat pizteko, baizik eta batzar horiek alaiago egiten dituzten jokoetan eta jolasetan buru-belarri sartzeko ere bai. Askotan zera atsegin izaten zuen: Europa Zaharreko pertsonaren rola hartu, koparekin topa eskaini eta, Evaren bultzada goxoaz, «Norvegiarrarena» egitea (topak eta bedeinkuak, tartekatuta).

Haugen oso ona zen baita ere bere denbora ikasleei eta lankideei eskaintzen. Aurreagoan aipatu dut berak irakurri (eta kritikatu) zuela nire *Language loyalty*-ren zirriborroa, biok elkar ikusi baino askoz lehenago, eta ni soziolinguistikaren alorrean zeharo ezezaguna nintzenean. Badakit, haren ikasleek Evari idatzitako gutunen bidez, Haugen nirekin bezain eskuzabala zela bere ikasleekin ere. Haietako batek, berez hizkuntzalari

handi bilakatu zenak, gogoratzen du: «Einarrek izugarritzko eragina izan zuen gutako askorengan, berak uste baino handiagoa; bai (harenak) ez ziren arloetakoengan ere. Nik *Language*-n argitaratu nuen lehen lan nagusia, hizkuntzek elkarrengan duten eraginari buruzkoa, haren sustapenari zor diot». Beste batek, hizkuntzalari bilakatu ez zen batek, dio: «atseginenez gogoratzen ditut Haugentarranean iluntzetan egiten ziren bilera haiek. Jende interesante asko ezagutzen nuen». Hirugarren bat, orain Estatu Batuetako irakaskuntzan goren mailako izena, honela mintzo da: «Hura maisu ona zen, eta izugarri lagundu zidan nire ikasle-urteetan. Gogoan ditut nire tesiaz eta beste zenbait gaiz izan genituen eztabaida ugariak. Bai haren indar erabakigarria ere hainbat batzarretan eta mahaingurutan. Hamaika aldiz joaten ginen beraren etxera». Beharbada hauexek dira irakasle gehientsuenek egiten dituztenak (edo zituztenak), baina gogoan izan behar da Haugenek egiten zituela hauek guztiak ikerketa harrigarrietan, argitalpenetan, batzorde-lanetan eta postu ofizialetan ari zen bitartean. LSAko lehendakaria izan zen 1950ean; 1955 eta 1962 artean Ikerketa Saileko Batzorde Iraunkorrean aritu zen. Urruneko erresuma bateko lankide baten semeak ere, bertako liburutegian Haugenen argitalpen gehienak falta zirela eta, eska ziezaiokeen ikasturteko gaiaz lanen bat egiteko laguntza eta, ondoko erantzuna jaso: «*Hona eskatu dizkidazun Bilin-gualism in the Americas-eko orrien kopiak. Baina hara: erreferentziak liburua-ren azkeneko bibliografian daudenez, hemen doakizu beste zorro batean li-burua bera, kopia zahar bat bada ere. Berau unibertsitateko liburutegian utziko ahal duzu gero —ene konplimenduekin —zerorrek gehiago behar ez duzunean*». Ez da harritzekoa, bada, haren ikasleek honelakoak esatea berataz: «*Hain zen pertsona gozoa, eskuzabala eta beti ongi hartzen gintuena! Aita bat beza-lakoa zitzaigun*».

Autodidakta, jakintsua, Estatu Batuetako etorkinen hizkuntzen adiskidea, gauzak arlo askotatik aztertzearen aldekoa, polemikazalea eta adiskide handia biak batera, maisu ona eta ikasle asko —oso atxikiak zitzaizkio-nak— argitu zituena, ikertzaile harrigarria, mundu osoan ibilia zena, hain gai ugariz irakasten eta idazten zuena non beraietako bakarra bizitza osoko lana baitzukeen pertsona arruntago batek... baina Haugen horien guztien batuketa baino gehiago zen. Hark bere jatorriaren azterketa zehatzetik, bere etorkin-giroko haurtzarotik, etorkinen gizartetik eta kulturatik atera zituen beti, gero onarpen zabala izango zuten aurkikuntza enpiriko eta generalizazio teorikoak. Bitxiago oraino, hura ez zen sekulan bere jatorritik aldentzen saiatu, ez Estatu Batuetako erdialdekoetik, ez haren gurasoak etorriak ziren «herri zaharretik» ere. Haren norvegiartasuna ez zen amodio platoniko hutsa, adimenduzko gauza, urrunetik eta bixita bakanak eginez bizi zuena. Norvegiak arrazoi osoz bertako semetzat zeukan, eta saririk gorenak eman zizkion norvegiararen eta beronen literatura eta soziolinguistikaren alde mende erdiz egindako lanarengatik, 1937ko *Beginning Norwegian*-etik 1993ko *Ole Bull*-eraino (hau bere alaba Camillarekin batera idatzia). Hura ez zen ordea nazioarte-mailako jakintsu handia bakarrik (ez ote zen hori nahikoa gure aitormena eta esker ona emateko?),

**«Bitxiago oraino, hura
ez zen sekulan bere
jatorritik aldentzen
saiatu, ez Estatu
Batuetako
erdialdekoetik, ez haren
gurasoak etorriak ziren
herri zaharretik ere.
Haren norvegiartasuna
ez zen amodio
platoniko hutsa,
adimenduzko gauza,
urrunetik eta bixita
bakanak eginez bizi
zuena»**

«Bere bizitzaz eta bere lanaz erakutsi zuen gai etnikoen eta lurralde txikietakoen ikerketak ez direla probintzietako kontutxoak, ez eta baztertuen edo bere kabuz bakartuen sailak ere, baizik eta ospe handiko disziplinak eta hauen barruko espezializazioak bezain dizdiratsuak eta emankorrak, bai teorietan, bai gogoetetan, bai metodoetan»

baizik eta handia zen, hain zuzen ere, bere norvegiar datuen inplikazio sakonagoez eta orokorragoetz hausnartzen zekielako. Hizkuntza atxikitzearen eta hizkuntza aldatzearen teoria orokorra eta analisia haren *The Norwegian language in America*-tik datoz funtsean. Hizkuntza plangintzaren analisia (hala estatus plangintzarena nola corpus plangintzarena) zor zaio Haugenen *Language conflict and language planning: The case of modern Norwegian*-i. Hark bere bizitzaz eta bere lanaz erakutsi zuen gai etnikoen eta lurralde txikietakoen ikerketak ez direla probintzietako kontutxoak, ez eta baztertuen edo bere kabuz bakartuen sailak ere, baizik eta ospe handiko disziplinak eta hauen barruko espezializazioak bezain dizdiratsuak eta emankorrak, bai teorietan, bai gogoetetan, bai metodoetan. Bere lehen datu-bilketa lanean asko ikasi zuen: norvegiar-amerikarren hizketa grabatzen aritu zen; berriemaile mordoak elkarriketatu zuen, norvegiar-amerikarren eta haien umeen eskoletako, elizetako, aldizkarietako, batzokietako eta abesbatzetako berri jakiteko; gutunak eta egunkari pribatuak aztertu zituen eta ehundaka liburu eta kazeta irakurri... Eta orduan ikasitako gauza on guztiak ez zitzaizkion sekulan ahanztzi. Hizkuntza zetorkionean gogora, berak ezagutu zituen bezalako mintzatzailak eta idazleak zekuskien. Hartatik ondorio hau atera zuen: fomalismo estruktural dogmatikoa, hala zaharra nola berria, gehiago ari zela galtzen (datuak), aurkitzen baino. Eta esan zuen azkenik «*Uste dut, Labov-ek bezala, soziolinguistika hizkuntzalaritza mota bat dela. Hori baztertzen duen edozein kontu-emate historiko oker dago*» (ikus Davis and O'Cain 1980).

1992ko martxoan Einarrek hau idatzi zidan: «*Estuasun batean ipini nau berrikitan Bob Stockwellen eskari batek. Dwight Bolingerrez informazioa eman diezaiodan nahi du, haren hil-deia idatzi behar omen du eta (ikus Language 69:99-112). Bitxia da ezagutu izan dugun jendeaz zein gutxi gogora dezakegun. Dwight pertsona isila zen, alaia eta atsegina, Harvard-a etorri aurretik zenbait eskolatan irakasle izana. Baina gure bideak bereizi egin ziren, eta ez dut zer esan askorik berari buruz*». Gutun berean, bera hil baino bi urte pasatxo lehenago idatzia (1994ko ekainaren 20an hil zen, 88 urte zituela), Haugenek aitortu zuen baita ere, «*adinak eta ahuleziak lana egitea galarazi didate azken aste hauetan, baina oraindik gai naiz idazteko makinaren aurrian eseri eta adiskideak agurtzeko*». Einar, ordea, ez zen erraz ahanztz dai-tekeen horietakoa, nahiz eta norbere arloak harenarekin lotura gutxi izan. Hura luzeegia zen, nabarmenegia, argiegia, zorrotzegia, emankorregia eta sineste indartsuak zituena, ahanzteko. Hura zen bere burua hizkuntzalari egin zutenen belaunaldikoa, unibertsitateko trebaketarik edo antzekorik gabe, baina, horregatik hain zuzen ere (eta ez «gabezia hori izan arren»), haiexek ziren hizkuntzalari guztien artean pizgarrienak, sakonenak, kementsuenak eta ahanztezinenak. Belaunaldi bat badator eta bestea badoa. Lehenengo soziolinguista-belaunaldia —1964ko uda Bloomingtonen elkarrekin igaro genuenak— hasi da joaten. Gelditzen direnek sekulan ez dute Einar Haugen ahanztziko, ez haren ikasle-ohiek eta lankideek ere. Haren obra, ordea, aski zabala da, eta datozen hizkuntzalari berriek, soziolinguistek, hizkuntzaren soziologoek, eta, noski, eskandinaviar hizkuntze-

takoek eta literaturetakoek ere ikasiko dute beragandik. Horiek guztiak ohartuko dira, haren garaiko hainbat eta hainbat bezalaxe, haren lanak esploratzea benetan probetxugarria dela⁴.

4) Zorretan nago Sting Eliassonekin, Charles Fergusonekin eta Eva Haugenekin artikulua hau idazteko eman didaten laguntza baliotsuagatik.

ERREFERENTZIAK

- DAVIS BOYD, H., and Raymond O'Cain, eds. 1980. *First Person Singular: Studies in the History of Linguistics*. v. 21. Amsterdam: John Benjamins.
- DIL, Anwar, ed. 1992. *The ecology of Language*. Stanford: Stanford University Press.
- FIRCHOW, Evelyn S.; Kaaren GRIMSTAD; Nils HASSELMO; and Wayne O'NEIL, eds.
- 1972a. *Studies for Einar Haugen*. The Hague: Mouton.
- 1972b. *Studies by Einar Haugen*. The Hague, Mouton.
- FISHMAN, Joshua A. 1966. *Language Loyalty in the United States*. The Hague: Mouton.
- HAUGEN, Einar. 1937. *Beginning Norwegian*. New York: F.S. Crofts.
- 1953. *The norwegian Language in America*. 2 vols. Philadelphia: University of Pennsylvania Press.
- 1956. *Bilingualism in the Americas*. University, AL: University of Alabama Press.
- 1966. *Language Conflict and Language Planning: The Case of Modern Norwegian*. Cambridge, MA: Harvard University Press.
- 1980. *On the making of a linguist*. In Davis and O'Cain. 133-43.
- 1987. *The Blessings of Babel*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- and Camilla CAI. 1993. *Ole Bull: Norway's Romantic Musician and Cosmopolitan Patriot*. Madison: University of Wisconsin Press.
- KELLY, L.G., ed. 1969. *Description and Measurement of Bilingualism*. Toronto: University of Toronto Press.
- NAESS, Harald S., and Sigmund Skard, eds. 1971. *Studies in Scandinavian-American Interrelations: Dedicated to Einar Haugen*. Oslo: Universitetsforlaget.
- ORNSTEIN, Jacob, and Robert St. Clair (eds). 1979. *Bilingualism and bilingual education: New readings and insights*. San Antonio: Trinity University Press.